

BIZILORE UDALekuak 2017

INFORMAZIO OSAGARRIA

Segidan udalekuei buruzko informazio orokorra ematen da. Arretaz irakurri, mesedez:

DATU OROKORRAK

- **TXANDAK:** Gure esku-orrian agertzen diren 4 txandetatik nahi dena aukeratu behar da. Aukera moduan beste txanda bat edo bi aukeratu daite(z)ke, aukeratutako lehen hori beteko balitz beste txanda esleituko litzateke.
- **ADINA:** 2005-2010 urteetan jaiotako haurrentzako dira udalekuak.
- **ATERPETXEA:** Udalekuak Azkoitiko Abaraxka aterpetxean izango dira.
- **PREZIOA:** 250 €
- **ORDAINKETA:** izena ematerakoan, epe bakarrean ordainduko da. Prezioan, igandetik ostiralera bitarteko ostatu eta mantenu osoa, begirale zerbitzua, jarduerak eta materiala eta aseguruua sartzen dira.
- **MATRIKULA EGITEKO EPEA:** Martxoaren 20tik maiatzaren 15era bitarte (biak barne).
- **ONARTUEN BAIEZTAPENA:** Maiatzaren 22rako onartuen baieztapenak posta elektronikoz komunikatuko dira. Matrikula orrian e-posta agertzen ez bada, telefonoz edo posta arruntaz egingo da.
- **GURASOEKIN BILERA INFORMATIBOA** (aukerakoa): Ekainaren 16an, ostiralean, arratsaldeko 6etan izango da. Bertan elkar ezagutu eta udalekuen inguruan egon daitezkeen zalantzak argituko dira. TOKIA: Abaraxka aterpetxea. Altamira auzoa, 20720 Azkoitia.

IZEN-EMATEA ETA ORDAINKETA

- **IZEN-EMATEA:** Gure web gunean egin behar da, bertan aurkituko duzuen formularioa betez: Web orria: www.bizilore.eus
- **IZEN-EMATEA NOLA EGIN**
 1. Webgunean sartu. Izen-emate galdetegia bete
 2. Osasun txartela eskaneatuta e-postaz bidali
 3. Ordainketa egin
- **ORDAINKETA:** Martxoaren 20tik Maiatzaren 15era bitarte egingo dira ordainketak.

EUSKADIKO KUTXA/CAJA LABORAL. IBAN ES84.3035.0031.71.0310053796
(Hazitik kooperatiba integrala koop. elkarte)

GARRANTZITSUA: Kontzeptu gisa parte hartzailearen (umearen) izena eta abizenak agertu behar dira, ez kontuaren jabearenak.
- **ITZULPENAK:** Lekua lortzen ez bada, diru itzulpena egingo da. Udalekuetan onartuak izan eta gero baja emanez gero, prezioaren %80a bueltatuko da ekainaren 12ra arte. Data horretatik aurrera ez da dirurik itzuliko, arazoa arazoituta ez baldin badago.
- **UDALEKUEN FAKTURA:** Norbaitek udalekuen faktura behar izanez gero, jarri gurekin harremanetan posta elektronikoz edo telefono bidez.

DIETAK ETA TRATAMENDUAK. OSASUN ARRETA

- **OSASUN TXARTELA:** Umearen osasun txartela eskaneatuta e-postaz helarazi, Mezuaren gai gisa "umearen izen-abizenak. OSASUN TXARTELA" idatzita.
- **DIETA BEREZIAK, ALERGIAK:** gure aterpetxeetan etxeko janaria prestatzen da, bertan egina. Dieta bereziak prestatzen ditugu. Matrikula orrietan behar berezi hauen zehaztapen guztiak idatzi behar dira.
- **BOTIKAK, MEDIKU TRATAMENDUAK:** Mediku, guraso edo tutoreek agindutako botikak bakarrik emango zaizkie umeei.
- **OSASUN ETA MEDIKU ARRETA:** istripu edo gaixotasun kasuetan, jardunaldi protokoloa jarraituko da.

BAIMENAK

- Bizilore udalekuetan eta bertan antolatzen diren ekintzetan parte hartzeko baimen eskaera egiten da.
- Behar izanez gero, kotxez mugitzeko baimen eskaera egiten da.
- Udalekuetan argazkiak egiteko baimen eskaera egiten da.

INFORMAZIO GEHIAGO EDOTA EDOZEIN ZALANTZETARAKO, HEMEN GAITUZUE:

Web orria: www.bizilore.eus

E-posta: biziloreudalekuak@gmail.com

Telefona: 605 47 68 02